

**II. ATALA**
BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA**Basauriko Udala****2016ko Ekitaldiko Lan-eskaintza Publikoa aldatzea**

Alkateak 1988/2017 Dekretua onetsi du, 2017ko ekainaren 6an. Honelaxe dio bertako testuak:

«Ikusita Basauriko Udaltzaingoan hutsik dauden lanpostuak betetzeko 2016ko lan-eskaintza publikoari buruz, Ogasun eta Funtzio Publikoko Ministeriotik 2017ko apirilaren 5ean jasotako jakinarazpena (Erregistro zenbakia: 2781).

Aintzat hartuta kontu-hartzaileak 2017ko maiatzaren 31n emandako txostenak, eta Giza Baliabideen atalburuak ekainaren 6an egindakoa. Eta apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21. artikulua ematen dizkidan eskumenak baliatuta, zera xedatzen dut:

Lehenengoa: Basauriko Udalaren 2016rako lan-ekaintza publikoa onetsi zuen abenduaren 2ko 3879/2016 Dekretua aldatzea (2016ko abenduaren 15eko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, eta 2017ko urtarrilaren 4ko EHAAan argitaratu zen). Zehazkiago, aurreikusitako udaltzain-plazen kopurua jasotzen zuen Eranskina aldatzea, eta 3 plazatik 1era igarotzea.

Bigarrena: Ebazpen hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzeko agindua ematea.

Basaurin, 2017ko ekainaren 9an. — Alkatea, Andoni Busquet Elorrieta



ERANSKINA

LAN-ESKAINZA PUBLIKOA 2016**Sarbide libreko sistema**

Taldea (7/07 Legearen art.-aren arabera)	Saikapena	Plazaren deskribapena	Plaza kop.	HE
C2	Adm. Bereziko Eskala. Zerbitzu Berezietako Azpieskala. Klasea: Udaltzaingoa.	UDALTZAINA	1	2
C1	Adm. Orokorreko Eskala. Administrariaren Azpieskala. Klasea: administraria.	TEKNIKARI ADMINISTRARIA	2	2
D	Adm. Bereziko Eskala. Zerbitzu Berezien Azpieskala. Klasea: hainbat lanbidetako langileak.	PEOI BALIONIZTUNA	1	1

Sarbide libreko sistema: Desgaitasunak dituztenen txanda

Taldea (7/07 Legearen art.-aren arabera)	Saikapena	Plazaren deskribapena	Plaza kop.	HE
C1	Adm. Orokorreko Eskala. Administrariaren Azpieskala. Klasea: administraria.	TEKNIKARI ADMINISTRARIA	1	2

Barne-sustapen txanda

Taldea (7/07 Legearen art.-aren arabera)	Saikapena	Plazaren deskribapena	Plaza kop.	HE
C2	Adm. Bereziko Eskala. Zerbitzu Berezien Azpieskala. Hainbat lanbidetako langileak.	OFIZIAL AROTZA	1	1
C2	Adm. Bereziko Eskala. Zerbitzu Berezien Azpieskala. Hainbat lanbidetako langileak.	OFIZIAL HODIGILEA	1	1
C2	Adm. Bereziko Eskala. Zerbitzu Berezien Azpieskala. Hainbat lanbidetako langileak.	OFIZIAL ELEKTRIKARIA	1	1
C2	Adm. Bereziko Eskala. Zerbitzu Berezien Azpieskala. Hainbat lanbidetako langileak.	GIDARIA	1	1
C2	Adm. Bereziko Eskala. Zerbitzu Berezien Azpieskala. Hainbat lanbidetako langileak.	ARDURADUNA	1	1
C2	Adm. Bereziko Eskala. Zerbitzu Berezien Azpieskala. Hainbat lanbidetako langileak.	BILTEGIKO OFIZIALA	1	1
E	Adm. Bereziko Eskala. Zerbitzu Berezien Azpieskala. Hainbat lanbidetako langileak.	BILTEGIKO LAGUNTZAILEA	1	1
E	Adm. Bereziko Eskala. Zerbitzu Berezien Azpieskala. Hainbat lanbidetako langileak.	IGELTSERO LAGUNTZAILEA	1	1
E	Adm. Bereziko Eskala. Zerbitzu Berezien Azpieskala. Hainbat lanbidetako langileak.	ZURGIN LAGUNTZAILEA	1	1

Deialdi bakoitzean zehaztuko dira eskaintako plazak lortzeko prozedura eta baldintzak.